

2016 MARTXOAK 8

ERAKUNDE ADIERAZPENA

**Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren alde,  
Feminismotik eraldaketa sozialera**

Nazioarteko Egunak aldarri egunak dira, egoera desorekatuak agerian utzi eta eman beharreko aldaketen aldarri eta borroka egunak. Martxoak 8a Emakumeen Nazioarteko eguna izateak beraz, emakume eta gizonen arteko gizarte orekatu bat lortzeko oraindik ere egin beharreko lana agerian jartzen du.

Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluko (CCRE-CEMR) Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasuna Tokiko Bizitzan Sustatzeko Batzorde Iraunkorrek adierazi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko eskubidea eta oinarritzko balioa dela demokraziarentzat. Tokiko eta eskualdeetako gobernuak herritarrengandik gertuen dauden esferak dira, eta, hortaz, esku-hartzerako maila garrantzitsuak dira oraindik ere dirauten desberdintasunei aurre egiteko eta emakumeen eskubideak Europan eta mundu osoan sustatzeko.

Batzorde honek aurkeztutako Gutun Europarrarekin bat egin zuen Errenteriako Udalak 2012ko maiatzaren 29an

Egunerokoa eta guztion lana da berdintasun erreala lortzeko lanari eustea, erakundeetan eta jendartean, lana eta enplegua baldintza duinetan banatua izan dadin, zaintza lanak partekatutako izan daitezen, afektibitatea eta sexualitatea modu anitzean, libreki eta seguru bizi ahal izan dadin, estereotipoak zein rolak gaindituak izan daitezen, eraso sexual eta sexistak desagertu daitezen, prekaritateak eta pobrezia emakume izena eduki ez dezaten, erabakiguneetan aritzeko aukera berak sor daitezen, besteren artean.

Horregatik, 2016ko martxoak 8 honetan, Errenteriako udalerrian ere badelako zer eginik, udaletxe honetako talde politiko guztiek ebazpen hauek adostu ditugu.

a) Errenteriako Udalak aldarrikatzen du demokrazia ezin eraiki daitekeela emakumerik gabe, eta, horrenbestez, beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla, maila guztietan – Tokikotik Europakoraino- emakumeek eta gizonek parte-hartze berdina izan dezaten erabakiak hartzeko prozesuetan.

b) Errenteriako Udalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure balioen eta europar gizartearen oinarritzko elementua dela bermatu dezatela eskatzea gobernuari eta Europako instituzioei; beraz, elementu horrek agenda politikoaren erdigunean egon behar du, eta politika eta lege garrantzitsu guztietan txertatu behar da,

c) Errenteriako Udalak, maila globalean elkarlanean aritzeko borondatea erakusten du, Nazio Batuen Erakundearen 2030eko Agendaren 5 Helburuak lortzeari begira, horrek xedetzat hartzen baitu emakumeen aurkako diskriminazio forma guztiak ezabatzea.

d)Errenteriako Udalak, emakumeek XXI. mendean pairatzen jarraitzen duten indarkeria salatzen du: bizitza pribatuan zein publikoan emakumeen aurka zuzentzen den indarkeria forma guztiei aurre egin behar zaie eta ezabatu egin behar dira, honako forma hauek barne sartuta: emakumeen trafikoa, sexu-esplotazioa, etxeko indarkeria eta giza eskubideak urratzen dituzten gainerako ekintza guztiak.

e)Errenteriako Udalak berdintasuna eskualde eta toki mailan sustatzeko neurri politiko konkretuak hartu ditzatela eskatzen die Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Lortzeko Europako Gutunaren sinatzaileei, CCRE-CEMRk Behatoki honen bidez eskura jartzen dituen tresnak erabiliz, tokiko eta eskualdeetako gobernuari ematen zaizkien botereen arabera; eta horren inplementaziorako beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideak eskaini ditzatela.

Errenteriako Udala, gutunaren sinatzaile gisa neurri politiko konkretu hauek hartzera konprometitzen da:

1.- Errenteriako Udalak, Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Lortzeko Europako Gutunaren sinatzaile bezala, bere eskumenean dauden gaietan, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko konpromisoa hartzen du, horretarako beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideak ezarriz.

2.- Errenteriako Udalak, konpromisoa hartzen du Emakume eta Gizonen berdintasunerako Ordenantza lantzeko, herriko emakume eta talde feministekin eta gainontzeko eragileekin elkarlanean.

3.-Errenteriako Udalak, konpromisoa hartzen du sortzen dituen idazki guztietan hizkuntza ez sexista eta inklusiboa erabiltzeko.

4.- Errenteriako Udalak, konpromisoa hartzen du Bientzia Matxistaren kontrako koordinazioa sustatzeko protokoloa adostu eta mahai horretan lanean jarraitzeko, herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean. Honekin batera, Genero-indarkeria prebenitzeko eta horren biktimak babesteko eta laguntzeko politika eta lege bateratuak sortu ditzatela eskatzen die estatuetako gobernuari eta EBko instituzioei.

5.- Errenteriako Udalak konpromisoa hartzen du gerra eta jazarpenetik ihes eginda gure udalerrira iristen diren errefuxiatuen artean dauden emakume eta haurren behar espezifikoak; beharrezko harrera eta arreta ziurtatzeko, eta haiekiko era guztietako indarkeria eta diskriminazioa eragozteko.

6.- Errenteriako Udalak, dei egiten die herritarrei, martxoak 8rako emakume eta talde feministek deitutako mobilizazioetan parte hartzera eta norberaren eguneroko bizitzan emakumeen aurkako diskriminazioa baztertu eta ezabatzerako.

Errenterian, 2016ko martxoaren 7an